ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2020ko martxoaren 30a, astelehena • 37 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

# LAUDIOKO UDALA

**Udalean hutsik dauden lanpostuak betetzeko merezimendu lehiaketa. Obra arduraduna, 5045 kodea duen lanpostuaren ebazpena**

Amaitu egin da Laudioko Udalean obra arduraduna, 5045 kodea duen lanpostua betetzeko, merezimendu-lehiaketa. Lehiaketa horren deialdia 2019ko azaroaren 5eko 2675 zenbakiko alkate-udalburuaren dekretu bidez egin zen eta 2019ko azaroaren 27ko 137 zenbakiko duen ALHAOn argitaratu zen. Ondorioz, 2020ko martxoaren 4ko alkate-udalburuaren 459 zk. duen dekretu bidez lanpostu hori esleitu egin zaio Joseba Solaun Solana karrerako funtzionarioari.

Atxikipen-lanpostuko kargua ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo hiru egun baliodunetan utzi beharko da.

Lanpostu berriaz jabetzeko data kargua utzi eta hurrengo eguna izango da.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke, hilabeteko (1) epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik edota hurrengo egunetik aurrera, ebazpena eman duen organoari berari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

Aukerako berraztertzeko errekurtsorik jartzen ez bada, bide judiziala irekiko da, eta, beraz, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da txandaka egokituko den Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi (2) hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik edota hurrengo egunetik aurrera.

Publiko egiten dena, indarrean dagoen legedia betez.

Laudion, 2020ko martxoaren 30ean

*Alkate-udalburua*
*ANDER AÑIBARRO MAESTRE*



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2020.03.30 05:36:10 Z